Kontratistak, obraren hileroko ziurtagiria egin ondoren, faktura administrazio-erregistro batean aurkeztu beharko du. Faktura Elektronikoa Sustatzeko eta Sektore Publikoko Fakturen Kontabilitate Erregistroa Sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezartzen dituen kasuetan, faktura formatu elektronikoan aurkeztu beharko da; kasu horietan, faktura sarbide-puntu orokorrean aurkeztea administrazio-erregistro batean aurkeztearen baliokidea da.

Kontratuan xedatuta dagoenaren arabera prestazioak egin direla egiaztatzen duten agiriak onartu eta hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du Administrazioak prezioa, hargatik eragotzi gabe SPKLren 210. artikuluaren 4. apartatuan ezarritakoa, eta, berandutuz gero, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari epe hori betetzen denetik aurrera,

SPKLren 198.4 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena).

Enpresa kontratistak obrak kontratuan ezarritako epean edo epeetan gauzatzeko behar baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak, salbu eta obraren zuzendaritza teknikoaren iritziz hori desegokia dela uste badu. Hala ere, urte bakoitzean, gauzatutakoaren edo emandako ziurtagirien zenbatekoa edozein dela ere, ezin izango du jaso dagokion urtean kontsignatutakoa baino zenbateko handiagoa, esleipen-koefizientearen eraginpean.

Ezaugarrien Taulako V) atalean hala ezartzen denean, enpresa kontratistak konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du egindako prestakuntza-eragiketengatik, hala nola obrari atxikitako materialak edo makina astunak instalatzeko eta biltzeko eragiketengatik, SPKLren 198.3 eta 240. artikuluetan eta HAKLEOren 155., 156. eta 157. artikuluetan horretarako zehaztutako moduan eta bermeekin, eta HAKLEOren 54. eta 58. klausulen arabera.

13.8.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK. Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez gain, honako betebehar hauek ere egongo dira berariaz:

a) INGURUMEN, GIZARTE ETA LAN ARLOETAN. Enpresa kontratistak nahitaez bete beharko ditu Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako ingurumen, gizarte eta lan arloko indarreko xedapenak, eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean ezarritakoak.

Bereziki:

1. Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta daudenean, dagokion lan-ordenantzako eta hitzarmen kolektiboko xedapenak bete beharko ditu.

2. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu. Era berean, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen dituen betebeharrak beteko ditu, eta kontratatutako jarduera hasi aurretik honako betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Kontratatutako jarduerari dagozkion arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.

- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren langileei prebentzio-arloko prestakuntza eta informazioa ematea.

- Behar izanez gero, norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria.

3. Enpresak lanen zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta administrazio kontratatzaileari eman. Enpresek, halaber, egindako azpikontratazioen berri eman beharko diote segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari, lanak hasi aurretik.

4. Langileek lanean ari direla istripuren bat izaten badute, edo kalteren bat izaten badute, indarrean dauden arauetan ezarritakoa bete beharko du bere erantzukizunpean, baina Administrazioak ez du inola ere erantzukizunik izango.

5. Ezaugarrien Taulako W) atalak hala adierazten duenean, legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek hala ezartzen duelako, enpresa esleipendunak enplegatzaile gisa subrogatu beharko du lan-harremanetan, eraginpean hartzen dituen langileei dagokienez. SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez, Baldintza Teknikoen Agirian subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa jasotzen da.

b) LAN-EGITARAUA. Ezaugarrien koadroan adierazten denean, eta betiere obra osorik egiteko urtebete baino gehiago behar dela aurreikusten bada, enpresa kontratistak lan-programa bat aurkeztu beharko du, bere proposamenarekin batera aurkeztutakoa garatzeko, kontratua formalizatzen denetik edo obrak hasteko baimena jakinarazten denetik hogeita hamar eguneko epean.

Era berean, lan-programaren eranskin gisa, lanak egiteko beharrezkotzat jotzen duen kategorien araberako plantilla zehaztu beharko du, eta zer plantilla duen ere adierazi beharko du.

Enpresa esleipendunak aurkeztutako lan-programa kontratu-dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Kontratazio-organoak lan-programari buruzko ebazpena emango du hura aurkeztu eta hamabost eguneko epean, edo, hala badagokio, aldaketak sartzea edo preskripzio jakin batzuk betetzea ezarriko du, betiere kontratuaren klausulen aurkakoak ez badira.

Enpresa kontratistak aurkeztutako lan-programa onartzen ez den bitartean, proiektuan jasotakoa aplikatuko da, edo, hala badagokio, enpresa lizitatzaileak lizitazio-fasean aurkeztutakoa.

Administrazioak obra-ziurtagiriak ez bideratzea erabaki ahal izango du, harik eta enpresa kontratistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte; hala ere, horrek ez du eskubiderik emango berandutze-interesak kobratzeko, ziurtagiriak berandu ordaintzeagatik.

c) KONTRATUA GAUZATZEKO BEHAR DIREN GASTUAK. Enpresa kontratistaren kontura izango dira zuinketa egiaztatzeko, zuzentzeko, ikuskatzeko eta likidatzeko lan teknikoak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, bai eta aplikatzekoak diren gainerakoak ere, indarrean dauden xedapenen arabera eta xedapen horietan ezarritako moduan eta zenbatekoan.
Era berean, enpresa kontratistaren kontura izango dira obrako materialak eta unitateak egiaztatzeko eta probatzeko Obraren Zuzendaritza Teknikoak beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituen gastuak, gehienez ere obra esleitzeko aurrekontuaren % 1era arte.

Enpresa esleipenduna behartuta dago udal-baimen guztiak kudeatzera, aldamioak, pasabideak, hesiak, hartuneetarako galtzadak eta abar jartzeko udal-baimenak izan ezik. Enpresa kontratistaren kontura izango dira baimen horien kudeaketak eta tasek eragiten dituzten gastuak, bai eta obrak egiteko gastuak ere. Era berean, obrarako

sarbideak gaitzeko behar diren obrak egitea, kontratistak aurkezten duen obra-planaren arabera, eta jabeak ez du inolako ordainketarik egin behar lurren alokairuengatik, erosketengatik edo antzekoengatik.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira kudeaketak egitea, gastu, tasa, ariel eta abar guztiak ordaintzea, eta funtzionamendu-alta eta -baimena lortzeko, sareetara eta zerbitzuetara lotzeko, behin-behineko hartuneak egiteko eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztatua lortzeko erakunde eskudunetan aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta ikus-onestea. Nolanahi ere, behin betiko hartuneak salbuetsita geratuko dira, erakunde kontratatzailearen kontura izango baitira.

Enpresa kontratistari dagokio, bere kontura, obrak eta instalazioak gauzatzeko behar diren energia elektrikoa, ura, telefonoa eta zerbitzu guztiak hornitzea. Zerbitzu horiek indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

d) SEINALEZTAPENA. Enpresa kontratistak bere kontura jarri behar ditu obrak iragartzeko kartelak, bai eta obrarako sarbidea, lanak egiten ari diren guneko zirkulazioa eta obrek eragin ditzaketen arrisku-puntuak adierazteko behar diren seinaleak ere, bai eremu horretan bertan, bai haren mugetan eta inguruetan. Hori guztia obra-zuzendariaren jarraibideen arabera.

e) AGINDUEN LIBURUA. Enpresa kontratista behartuta dago agindu-liburua une oro gordetzera eta obran eskuragarri izatera. Obren zuzendaritza teknikoaren eta kontratuaren arduradunaren eskura egongo da, eta haiek bertan jaso beharko dituzte obrak egiten diren bitartean gertatzen diren bisitak, gorabeherak eta aginduak.

Enpresa kontratistak, bere kabuz edo bere ordezkariaren bidez, jarraibide horiek jaso izanaren agiria sinatu beharko du.

Harrera-ekitaldian agindu-liburua aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, eta Administrazioaren esku geratuko da harrera egin ondoren.

f) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak eta balizko azpikontratistek bi hizkuntzen koofizialtasuna zaindu beharko dute kontratua gauzatzean, euskara eta gaztelania, eta elebitasunaren eta herritarren hizkuntza-eskubideen errespetuaren irizpideei lotu beharko diete beren jarduera, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren normalizazio-prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuan jasotako xedapenen arabera.

13.10.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Administrazioak sektore publikoaren gardentasunerako, herritarren partaidetzarako eta gobernu onerako betebeharrak betetzeko egiten dizkion informazio-errekerimenduei erantzungo die enpresa kontratista esleipendunak, eta kontratuaren xedeari lotutako baldintza berezi hauek aplikatuko ditu kontratua gauzatzean: sozialak, etikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak, ezaugarrien taulako W) apartatuan zehaztutakoak.

13.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratua lagatzeari dagokionez, SPKLren 214. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Enpresa esleipendunak kontratuaren zati bat hirugarrenekin egiteari dagokionez, SPKLren 215. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, eta enpresa azpikontratistei eta

hornitzaileei egin beharreko ordainketak SPKLren 216. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

Nolanahi ere, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa, prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen eta enpresa azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak adieraziz, eta behar bezala justifikatuz enpresa horrek kontratua gauzatzeko gaitasuna duela, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta, eta egiaztatuta enpresa horrek ez duela kontratatzeko debekurik, ez eta kontratu nagusia egikaritzean informazio horrek izandako edozein aldaketa eta enpresa azpikontratista berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia ere.

13.12.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango da, Ezaugarri Taulako X) apartatuan edo SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta SPKLren 207. artikuluan araututako prozeduraren arabera. SPKLren 242. artikulua eta APKLEOren 158. artikulutik 162. artikulura bitartekoak ere aplikatuko dira.

Kasu horietan, kontratazio-organoak adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan izan ezik; izan ere, kasu horietan bakarrik izango dira nahitaezkoak, banaka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez duen zenbatekoaren aldaketa bat dakartenean, BEZik gabe.

Obraren zuzendaritza teknikoak proiektua aldatzea beharrezkotzat jotzen badu, baimena eskatuko dio kontratazio-organoari, dagokion espedientea hasteko. Horretarako, proposamen bat idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriez osatua.

Baldin eta, aldaketa bat izapidetzeko, obrak, osorik edo zati batean, aldi baterako eten behar badira, eta horrek interes publikoari kalte larriak eragiten badizkio, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du obrek behin-behinean aurrera jarraitzea, zuzendaritza teknikoak egindako proposamen teknikoan ezarritakoaren arabera, betiere aurreikusitako gehieneko zenbatekoak kontratuaren hasierako prezioaren % 20 gainditzen ez badu eta hura finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa badago.

Obren zuzendaritza teknikoak eta enpresa kontratistak ezin izango dute aldaketarik sartu edo gauzatu kontratuan jasotako obretan, kontratazio-organoak aldaketa eta horren ondoriozko aurrekontua behar bezala onartu gabe.

Hala ere, aldez aurretik onartu beharrik gabe aldatu ahal izango dira, baldin eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako unitate-kopurua baino unitate gehiago exekutatzen badira, eta, betiere, gastua kontratuaren hasierako prezioa baino % 10 handiagoa ez bada.

13.13.- KONTRATUA ETETEA. Eteteari dagokionez, SPKLren 208. artikuluan eta APKLEOren 103., 170. eta 171. artikuluetan adierazitakoa bete beharko da.

Etete partziala edo osoa, aldi baterakoa edo behin betikoa gertatzen bada, etete-akta egin beharko da, eta obren zuzendaritza teknikoak eta enpresa kontratistak sinatu beharko dute. Akta horretan honako hauek jasoko dira: etetea eragin zuen

administrazioaren akordioa, etete hori eragin duten inguruabarrak eta kontratuaren exekuzioan izan den egitatezko egoera, zehazki definituta etendurak eragindako obra zatia edo zatiak edo obra guztiak.

Etetea erabaki ondoren, Administrazioak kalte-galerak ordainduko dizkio enpresa kontratistari, SPKLren 208.2 artikuluan adierazitako arauen arabera.

Administrazioak obrak zortzi hilabete baino gehiagoz etetea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.

13.14.- OBRAK ONARTZEA. Obren harrera SPKLren 210. eta 243. artikuluetan, APKLEOren 163. artikuluan eta hurrengoetan eta AKPPren 71. klausulan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera egingo da.

13.14.1.- Kontratua betetzat joko da kontratistak, kontratuko baldintzen arabera eta administrazioaren nahierara, obra osoa egin duenean.

Enpresa kontratistak edo haren ordezkariak idatziz jakinaraziko dio obren zuzendaritza teknikoari obrak amaitzeko aurreikusitako data, gutxienez berrogeita bost egun baliodun lehenago.

Obraren harrera idatzizko komunikazioa egin ondoren egingo da, eta, beranduenez, amaitu eta hurrengo hilabetean, edo Ezaugarrien Taulako AA) atalean zehaztutako epean.

Harreraren akta egingo da, egintzan parte hartzen duten pertsona guztiek sinatuko dutena, eta bertan jasoko da obrak egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera dauden; kasu horretan, obren zuzendaritza teknikoak hartutzat joko ditu, eta orduan hasiko da berme-epea.

Obrak jasotzeko moduan ez badaude, hala jasoko da aktan, eta obren zuzendaritza teknikoak antzemandako akatsak adieraziko ditu eta behar diren jarraibideak zehaztuko ditu, akatsak zuzentzeko epe bat ezarriz. Epe hori igaro eta enpresa kontratistak halakorik egin ez badu, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsiarazi.

Administrazioak obren harrera partzialak egin ahal izango ditu, baldin eta Ezaugarrien Taulan partzialki betetzeko epeak ezarri badira.

Behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiak direla-eta, Administrazioak erabakitzen badu obrak benetan okupatzea edo obra horiek erabilera publikorako zerbitzuan jartzea, nahiz eta harrera-egintza formala bete ez, inguruabar horiek gertatzen diren unetik bertatik sortuko dira obrak hartzeko egintzaren berezko ondorio eta ondorioak, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

13.14.2.- Obrak jaso eta hiru hilabeteko epean, gauzatutako obren azken ziurtagiria onartu beharko du kontratazio-organoak, eta enpresa kontratistari ordainduko zaio, kontratuaren likidazioaren kontura.

13.15.- BERME-EPEA. Harrera-aktaren datatik aurrera, Ezaugarrien Taulako Z) atalean agertzen den berme-epea hasiko da zenbatzen, eta ezin izango da urtebetetik beherakoa izan, kasu berezietan izan ezik. Hala ere, obren iraupenak helburu praktikorik ez badu, hala nola emaitzarik lortu ez duten zundaketa eta prospekzioak, edo beren

izaeragatik kontserbazio hutsaren kontzeptua gainditzen duten lanak eskatzen dituztenak, dragatze-lanak kasu, ez dira eskatuko. Nolanahi ere, esleipendunak bere gain hartutako konpromisoei erantzungo zaie, berme-epea luzatzea eskaintzen badu.

Berme-epeak irauten duen bitartean, obran ager daitezkeen akatsen erantzulea enpresa kontratista izango da, eta, era berean, behartuta egongo da obra zaintzera eta zaintzera, baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoaren eta obren zuzendaritza teknikoak emandako jarraibideen arabera, eta bertan gertatzen diren berezko kalteen erantzulea izango da.

13.16.- LIKIDAZIOA. Berme-epea bete aurreko hamabost eguneko epean, obraren zuzendaritza teknikoak, ofizioz edo enpresa kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txosten bat idatziko du, SPKLren 243.3 artikuluan eta HAKLEOren 169. artikuluan adierazitako ondorioekin. Honako hauek dira:

- Txostena aldekoa bada, enpresa kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango, ezkutuko akatsen erantzukizuna izan ezik. Orduan, bermea itzuli edo ezereztu egingo da, kontratua likidatu egingo da, eta, hala badagokio, ordaintzeke dauden betebeharrak ordainduko dira.

- Txostena aldekoa ez bada, eta antzemandako akatsak obrak gaizki egin izanaren ondorio badira, eta ez berme-epean eraikitakoa gaizki erabiltzearena, zuzendaritza teknikoak behar diren jarraibideak emango dizkio enpresa kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan, eta epe bat emango dio horretarako; epe horretan ere, enpresa kontratistak izango du obrak kontserbatzeko ardura, eta ez du inolako diru-kopururik jasotzeko eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik.

Hala ere, berme-epea amaitu ondoren obra hondatzen bada enpresa kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz eraikuntzan ezkutuan egindako akatsengatik, enpresa kontratistak izango du kalte-galeren erantzukizuna hamabost urteko epean, obra hartzen denetik zenbatzen hasita.

13.17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLren 211. eta 245. artikuluetan aipatzen diren kasuetan suntsiaraziko da, eta kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo enpresa kontratistak eskatuta, haren entzunaldia bermatuko duen prozeduraren bidez, SPKLren 212., 213. eta 246. artikuluetan eta HAKLEOren 110. artikulutik 113. artikulura eta 172. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Ezaugarrien Taulako T) atalean ez betetzeagatik zigorrak ezarri ez badira, Ezaugarrien Taulako W) atalean zehaztutako exekuzio-baldintza bereziak kontratuaren funtsezko betebehar izango dira, SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Ondorio horietarako, kontratuaren funtsezko betebehartzat hartuko da, halaber, Ezaugarri Taulako J) atalean eskatzen den giza baliabide edo baliabide material nahikoak adskribatzeko konpromisoa.

Enpresa esleipendunaren erruz suntsiarazten bada kontratua, behin betiko bermea konfiskatuko zaio, hargatik eragotzi gabe administrazioari eragindako kalte-galerengatiko kalte-ordaina, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorakoak direnean.

13.18.- KONFIDENTZIALTASUNA. Agiri honen xede den prestazioa gauzatzeko datu pertsonalak eta administrazioaren titulartasuneko fitxategietan jasotako tratamenduak eskuratu behar badira, adjudikazioa jasotzen duen erakundeak datuen tratamenduaren

arduradun gisa jardungo du, eta tratamenduaren xede izango da hori, kontuan hartuta Datuak Babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 28. artikuluan eta hura garatzeko estatu-araudian xedatutakoa. Hirugarrenen konturako datu pertsonalen tratamendua nahitaezko konfidentzialtasun-klausulen bidez arautuko da. Erakunde esleipendunak bete beharreko dokumentuen ereduak baldintza-agiri honi erantsi zaizkio, XII. eranskinean.

Era berean, esleipenaren publizitateari eta enpresa hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenei kalterik egin gabe, kontratazio-organoak ezingo du zabaldu III. eranskinean sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela-eta konfidentzialtzat jotako enpresek emandako informazioa, lotura hori justifikatzen duten arrazoiak azalduta.

VI. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.1.- Kontratazio-organoak prerrogatiba hauek ditu: administrazio-kontratuak interpretatzea, haiek betetzean sortzen diren zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz enpresa kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren betearazpena etetea, hura suntsiaraztea eta haren ondorioak zehaztea, betiere SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan adierazitako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizunei eta ondorioei lotuta.

Era berean, kontratazio-organoak enpresa kontratistek kontratua exekutatu bitartean garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmenak ditu, aipatutako legean ezarritako baldintzetan eta mugekin.

Kontratazio-organoak interpretazio-, aldaketa- eta ebazpen-prerrogatibak erabiliz hartzen dituen erabakiak berehala betearaztekoak izango dira.
14.2.- Kontratu honen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu. Kontratazio-organoaren ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta haien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe enpresa interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izatea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

14.3.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren egintzen aurka.

I. ERANSKINA.- ESKAINTZA EREDUA	ANEXO I.- MODELO DE PROPOSICIÓN
II. ERANSKINA.- KONPROMISOA: BALIABIDEAK ATXIKITZEA ETA BURUTZAPEN BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA	ANEXO II.- COMPROMISO DE ADSCRIPCIÓN DE MEDIOS Y DE CUMPLIMIENTO DE CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN
III. ERANSKINA.- ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNAREN ADIERAZPENA	ANEXO III.- DECLARACIÓN COMO CONFIDENCIAL DE LA INFORMACIÓN FACILITADA POR LA EMPRESA
IV. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO DOKUMENTU BAKARRA ETA BETETZEKO JARRAIBIDEAK	ANEXO IV.- DOCUMENTO EUROPEO UNICO DE CONTRATACION Y CUMPLIMENTACION
V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDE BATEKO KIDEA DELAKO ADIERAZPENA	ANEXO V.- DECLARACION RELATIVA A FORMAR PARTE DE UN GRUPO EMPRESARIAL
VI. ERANSKINA.- ATZERRIKO ENPRESEN DOKUMENTAZIOA	ANEXO VI.– DOCUMENTACION EMPRESAS EXTRANJERAS
VII. ERANSKINA.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK	ANEXO VII.- DECLARACIONES RESPONSABLES A PRESENTAR POR LA EMPRESA LICITADORA SOBRE LA QUE RECAIGA LA PROPUESTA DE ADJUDICACION
VIII. ERANSKINA.- ABAL EREDUA	ANEXO VIII.- MODELO DE AVAL
IX. ERANSKINA.- BERMEA IDAZTOHARTUTAKO (INSKRIBATUTAKO) BALOREEN BIDEZ ERATZEKO EREDUA	ANEXO IX.- MODELO DE GARANTÍA MEDIANTE VALORES ANOTADOS (CON INSCRIPCIÓN)
X. ERANSKINA.- BERMEA INBERTSIO FUNTSEN PARTAIDETZEN PIGNORAZIOAREN BIDEZ ERATZEKO EREDUA	ANEXO X.- MODELO DE GARANTÍA MEDIANTE PIGNORACIÓN DE PARTICIPACIONES DE FONDOS DE INVERSIÓN

XI. ERANSKINA.- KAUZIO ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA	ANEXO XI.- MODELO DE CERTIFICADO DE SEGURO DE CAUCIÓN
XII. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTASUN KONTRATUA	ANEXO XII.- CONTRATO DE CONFIDENCIALIDAD
	(Sin contenido)
XIII. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN ETA JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOEN SISTEMA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK	ANEXO XIII.- INSTRUCCIONES PARA LA UTILIZACIÓN DEL SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA Y NOTIFICACIÓN Y COMUNICACIÓN ELECTRÓNICA (Sin contenido)

Mutrikuko Udala

ADIERAZPEN ERANSKINA

KONTRATAZIORAKO GAITASUNAREN ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

……. Jaun/Andrea, …….. NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ……. Izenean

LCSP 159.4 art. Oinarrituta ERANTZUNKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

1.- Eskaintza aurkezten duen erakundearen ordezkaritza ardura duela.

2.- Kaudimen ekonomiko, finantziero eta tekniko egokia duela.

3.-Jarduera aurrera eramateko beharrezko baimenak dituela.

4.- Ez duela kontratatzeko debekurik.

5.- Enpresa bat baino gehiago batasunean aurkeztuko balira, bakoitzak euren gaitasun, izaera eta kaudimena egiaztatu beharko du, erantzunkizunpeko adierazpen bana aurkeztuz.

Tokia, data eta sinadura

ANEXO DECLARACIÓN:

DECLARACION RESPONSABLE DE CAPACIDAD PARA CONTRATAR

D./Dª……., con N.I.F……actuando en nombre propio o en representación de ……..

DECLARA RESPONSABLEMENTE, a los efectos del art. 159.4 c) de la LCSP:

1.- Que ostenta la representación de la sociedad que presenta la oferta.

2.- Que cuenta con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica.

3.- Que cuanta con las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad.

4.- Que no está incurso en prohibición de contratar alguna.

5.- Si varias empresas concurren constituyendo una unión temporal, cada una de las que la componen deberá acreditar su personalidad, capacidad y solvencia, presentado todas y cada una de ellas la correspondiente declaración responsable.

Lugar, fecha y firma

Mutrikuko Udala

I. ERANSKINA:

ESKAINTZA EREDUA

ANEXO I:

MODELO DE PROPOSICIÓN

Kontratuaren xedea ▪ Objeto del contrato

Zerbitzuak honentzat egingo dira ▪ Las obras se realizarán para

Mutrikuko Udala / Ayuntamiento de Mutriku

(adierazi administazioa ▪ *indicar administración)*

Adierazpen egilearen izen-abizenak ▪ Nombre y apellidos de la persona declarante

Honen ordezkaritzan (enpresa edo sozietatea) ▪ En representación de (empresa o sociedad)

Adierazpen egileak, adindunak, bere izenean eta/edo ordezkari gisa, hauxe

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Kontratatzailearen Profilean/EBAOn argitaratu den eta goian aipatutako zerbitzuen lizitazioaren deialdiaren berri jakin du.

BIGARRENA.- Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Berezien Agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak aztertu eta ezagutzen ditu.

HIRUGARRENA.- Halaber, administrazio klausula berezien agiriko lehenengo

La persona declarante, mayor de edad, en nombre propio y/o como representante,

DECLARA:

PRIMERO.- Que está enterada del anuncio publicado en *el Perfil del Contratante/DOUE,* por el que se convoca la licitación para la ejecución de obras que se especifican arriba.

SEGUNDO.- Que ha examinado y conoce el Pliego de Prescripciones Técnicas y el de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que debe regir el presente contrato.

TERCERO.- Que igualmente conoce los textos legales y reglamentarios a que se refiere la cláusula primera de los Pliegos de

klausulan aipatzen diren arauzko eta legezko testuak ezagutzen ditu.

LAUGARRENA.- Aurreko 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren agiri eta legezko eta arauzko testu guztiak oso-osorik eta aldaketarik gabe onartzen ditu eta haietan ezarritakoari lotuko zaio bere borondatez.

BOSGARRENA.- Hitzematen du zerbitzuak osorik egiteko, epealdi honetan eta eskaintza ekonomiko honekin:

Cláusulas Administrativas Particulares.

CUARTO.- Que encuentra de conformidad, se somete voluntariamente y acepta íntegramente y sin variación todos los documentos y los textos legales y reglamentarios a los que se refieren, respectivamente, los apartados anteriores 2 y 3.

QUINTO.- Que se compromete a llevar a cabo la ejecución total de las obras con la oferta económica y plazo siguientes:

Eskaintza (BEZa aparte)	**BEZa**	**Prezioa, guztira**

Kopuru horretan sartuta daude aplikagarri diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta zerbitzua ematetik erator daitekeen beste edozein gastu edo baldintza-agirietan aurreikusitako betebeharrak betetzeagatik enpresa esleipendunari sor dakiokeen beste edozein ere.

Honekin batera **eranskin** bat doa, eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko balio izan duten alekako prezioen banakatzea jasotzen duena –proiektuaren arabera

Dicho importe incluye todos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como cualquier otro gasto que se derive de la prestación, o que se origine para la empresa adjudicataria como consecuencia del cumplimiento de las obligaciones contempladas en los Pliegos

Se adjunta un **anexo** con desglose de precios unitarios, según proyecto, que han servido para el cálculo de la oferta económica

.

Mutrikuko Udala

SEIGARRENA.- (…Hala badagokio…), honako konpromiso hauek hartzen dituela:

a) Kontratua betetzeko lantaldean …. pertsona sartzea, kontratu mugagabeko langile gisa..

Honekin batera doa, hitzeman bezala, mugagabeko langile gisa sartuko direnen zerrenda.

b).Pleguan aurreikusitako urtebeteko gutxienezko berme-epea … urte gehiagoz luzatzea.

d) Pleguan aurreiksuitako obren egikaritza epea…. astetan murriztea

ZAZPIGARRENA.- (Hala badagokio) Ingurumenaren kudeaketari dagozkion …… (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo antzerako) sistemak ditudala; erantsita doazen ziurtagiri bidez egiaztatzen dut

Edo…, obran erabiliko den materiala honako material fabrikatzaile eta hornitzaile enpresekin kontratatzeko konpromesua hartzen dut ……. (enpresaren izena), eta lagundutako ziurtagiriaren arabera egiaztatzen dut enpresa horiek ……..(zenbat, zenbakia) EMAS, ISO 14.001, Ekoskan edo antzerako ingurumen ziurtagiriak dituztela.

ZORTZIGARRENA.- Adierazten dudala, esleipenduna izatekotan obra egikaritzeko lantaldeko langile guztiei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ..... izango dela.

Eta langile horiei, behin kontratua esleitu ondoren, aplikatuko zaizkien lan-baldintzei

SEXTO.- (…En su caso…), que se compromete a:

a) A integrar en la plantilla adscrita a la ejecución del contrato a …….. Personas, como personal con contrato indefinido.

Se acompaña relación de personas, que se compromete a integrar como personal indefinido.

b) Ampliar el plazo mínimo de garantía de un año previsto en el pliego, en ……. años adicionales.

c) Reducir el plazo de ejecución de las obras previsto en el pliego en ….semanas

SÉPTIMO.- (En su caso) Que dispongo de los correspondientes sistemas de gestión medioambiental (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan o similar), que acredito mediante la certificación que se adjunta.

O bien, me comprometo a contratar el material a utilizar en la obra con las siguientes empresas fabricantes y suministradoras (nombre de la empresa), acreditando que dichas empresas disponen de certificaciones ambientales como EMAS, ISO 14.001, Ekoskan o similares, de acuerdo con el certificado apoyado.

OCTAVO.- Que manifiesto que el convenio colectivo, que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que, en su caso, estén adscritos a la ejecución de la obra, en el caso de resultar adjudicatario es ……

Y me comprometo a facilitar cuanta información se requiera sobre las

buruz eskatutako informazio guztia emateko konpromisoa hartzen dut.

Halaber, adierazten dut borondatez onartzen dudala kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesutik eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala emateko obligazioa, kontratua amaitzen den arte.

condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

Asimismo, manifiesto que acepto voluntariamente la obligación de dar transparencia institucional a todos los datos derivados del proceso de licitación, adjudicación y ejecución del contrato, hasta su finalización.

……..….

*(**Tokia eta data** ▪ Lugar y fecha)*

Sin. ▪ Fdo. ……..……..

NAN/IFZ ▪ DNI/NIF……..……..

Mutrikuko Udala

II. ERANSKINA:

KONPROMISOA, BALIABIDEAK ATXIKITZEKO ETA BURUTZAPEN BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO

ANEXO II:

COMPROMISO DE ADSCRIPCIÓN DE MEDIOS Y DE CUMPLIMIENTO DE CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN

Kontratuaren xedea ▪ Objeto del contrato

Adierazpen egilearen izen-abizenak ▪ Nombre y apellidos de la persona declarante

Helbidea ▪ Dirección

NAN ▪ DNI

Honen ordezkaritzan: ▪ En representación de:

Adierazpen egileak, adindunak, bere izenean eta/edo ordezkari gisa, hauxe

La persona declarante, mayor de edad, en nombre propio y/o como representante, de forma responsable

ADIERAZTEN DU

DECLARA

Konpromisoa hartzen du ezaugarrien taulako X) idatz zatian baldintzen agirian eta dokumentazio teknikoan ezartzen diren baldintza bereziak betetzeko.

Que se compromete a cumplir las condiciones especiales de ejecución indicadas en el apartado W) del Cuadro de Características, en el pliego y en la documentación técnica.

Konpromisoa hartzen du ezaugarrien taulako J) idatz zatian edo baldintza teknikoen agirian ezartzen diren baliabide pertsonal eta material guztiak jartzeko eta kontratuaren indarraldi osoan mantentzeko.

Que se compromete a adscribir y mantener durante la duración total del contrato los medios materiales y personales establecidos en el apartado J) del Cuadro de Características, o en su caso, en el Pliego de Prescripciones Técnicas.

*(**Tokia eta data** ▪ Lugar y fecha)*

Sin. ▪ Fdo.: ……..……..

NAN/IFZ: ▪ DNI/NIF:……..…….

Mutrikuko Udala

III. ERANSKINA:

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNAREN ADIERAZPENA

ANEXO III:

DECLARACIÓN COMO CONFIDENCIAL DE LA INFORMACIÓN FACILITADA POR LA EMPRESA

Kontratuaren xedea ▪ Objeto del contrato

Adierazpen egilearen izen-abizenak ▪ Nombre y apellidos de la persona declarante

Helbidea ▪ Dirección

NAN ▪ DNI

Honen ordezkaritzan (enpresa edo sozietatea) ▪ En representación de (empresa o

Adierazpen egileak, adindunak, bere izenean eta/edo ordezkari gisa, hauxe

ADIERAZTEN DU:

Behean zehazten den gutun azalean aurkeztutako dokumentazioari loturik, ondoren azaltzen diren eskaintzaren informazioak eta datuak konfidentzialak dira, sekretu teknikoekin edo merkataritzakoekin lotuta baitaude.

La persona declarante, mayor de edad, en nombre propio y/o como representante,

DECLARA:

Que en relación con la documentación aportada en el sobre que abajo se señala, se consideran confidenciales las siguientes informaciones y aspectos de la oferta por razón de su vinculación a secretos técnicos o comerciales.

Informazio eta datu konfidentzialak ▪ Información y aspectos confidenciales

Mutrikuko Udala

Gutun azala ▪

*(**Tokia eta data** ▪ Lugar y fecha)*

……..….

Sin. ▪ Fdo.: ……..……..

NAN/IFZ ▪ DNI/NIF……..…….

Mutrikuko Udala

IV. ERANSKINA:

EUROPAKO KONTRATAZIO DOKUMENTU BAKARRA (EKDB) ETA BETETZEKO ARGIBIDEAK

Urrats hauek egin behar dira Europako kontratazio dokumentu bakarra (EKDB) betetzeko:

1. Deskargatu ordenagailura DEUC.xml fitxategia Kontratatzailearen profiletik.

2. Ireki esteka hau: https:/ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es:

3. Hautatu hizkuntza: "*español*".

4. Hautatu "*soy un operador económico*".

5. Klikatu "*importar un DEUC*".

6. Klikatu "*examinar* " eta hautatu 1. urratsean deskargatutako xml dokumentua.

7. Espedienteari dagokion EKDB agertuko da pantailan. Ondoren bi aukera daude: dokumentua bete eta lizitazio plataforman txertatu ondoriozko xml dokumentua edo, bestela, betetako dokumentua inprimatu, eskaneatu, sinadura elektronikoa ezarri eta kargatu.

ANEXO IV:

DOCUMENTO EUROPEO UNICO DE CONTRATACIÓN (DEUC) Y CUMPLIMENTACION

Los pasos para poder cumplimentar el Documento Único Europeo de Contratación (DEUC) son los siguientes :

1. Descargar en su equipo el fichero DEUC.xml que se encuentra disponible en el Perfil del Contratante

2. Abrir el siguiente link : https:/ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es:

3. Seleccionar el idioma "*español*".

4. Seleccionar la opción "*soy un operador económico*".

5. Seleccionar la opción "*importar un DEUC*".

6. En "*examinar* "elegir el documento que nos hemos descargado en el paso 1 en el formato xml.

7. Ya aparece el DEUC correspondiente a este expediente, con lo que se cumplimienta y se aporta en la plataforma de licitación adjuntando el documento xml resultante o también puede imprimir el

Nahi baduzue, "Kontratazio publikoari buruzko gidalerro berrian ezartzen den Europako kontratazio dokumentu bakarraz Administrazioko Kontratazioaren Aholku Batzordeak emandako gomendioa" (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 85. zk., 2016ko apirilaren 8koa, ostirala; III. sek., 24.845. or.) eskura dezakezue esteka honetan:

http://www.boe.es/boe/dias/2016/04/08/pdfs/BOE-A-2016-3392.pdf

documento cumplimentado y subirlo escaneado y firmado.

Tienen a su disposición la "*Recomendación de la Junta Consultiva de Contratación Administrativa sobre la utilización del Documento Europeo Único de Contratación previsto en la nueva Directiva de contratación pública*", publicada en el Boletín Oficial del Estado Núm. 85 del viernes 8 de abril de 2016 (Sec. III. Pág. 24845) en el siguiente link:

http://www.boe.es/boe/dias/2016/04/08/pdfs/BOE-A-2016-3392.pdf

Mutrikuko Udala

V. ERANSKINA:

ENPRESA TALDE BATEKO KIDEA DELAKO ADIERAZPENA

ANEXO V:

DECLARACION RELATIVA A FORMAR PARTE DE UN GRUPO EMPRESARIAL

Kontratuaren xedea ▪ Objeto del contrato

Adierazpen egilearen izen-abizenak ▪ Nombre y apellidos de la persona declarante

Helbidea ▪ Dirección	**NAN** ▪ DNI

Honen ordezkaritzan (enpresa edo sozietatea) ▪ En representación de (empresa o

Adierazpen egileak, adindunak, bere izenean eta/edo ordezkari gisa, erantzukizunez hauxe	La persona declarante, mayor de edad, en nombre propio y/o como representante, de forma responsable
ADIERAZTEN DU	DECLARA

Ordezkatzen duen sozietatea enpresa talde bateko kide da.	☐	Que la sociedad a la que representa forma parte de un grupo empresarial.

*(**Baiezkoan, markatu "X" batez** ▪ Márquese con una "X" en caso afirmativo)*

Baiezkoan, adierazi behar da agiri honi gehitutako eranskinean, zer dela eta lotu zaion taldeari, baita talde bereko enpresen zerrenda ere, eta horietatik zeinek duten lizitatzeko interesa.	En caso afirmativo, debe indicarse en anexo a este documento la circunstancia que origina la vinculación al grupo, así como la relación de las empresas pertenecientes al mismo grupo con indicación de las interesadas en licitar**.**

……

*(**Tokia eta data** ▪ Lugar y fecha)*

Ordezkariaren sinadura ▪ Firma de la persona representante

NAN/IFZ ▪ DNI/NIF……..……

VI. ERANSKINA:

ATZERRIKO ENPRESEN AGIRIAK

1.- **Baldin eta esleipenduna** Europar Batasuneko estatu bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duen estatu bateko enpresa bada, bi aukera dauzka frogatzeko behar diren gaitasuna eta kaudimena dauzkala eta kontratatzeko debekurik ez daukala: Europar Batasuneko estatu batek ezarritako kontratatzeko baimendutako enpresen zerrenda ofizialean begiratu edo, bestela, baldintzen agirietan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu, honako hauek kontuan hartuz.

1.1. Identifikatzeko, egoitza duten herrian duten izaera ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute edo, bestela, batasuneko pasaportea.

1.2. Enpresek jarduteko gaitasuna izango dute, enpresek egoitza duten estatuko araudiak gaitasun hori badutela aitortzen dienean. Araudi horrek, dagokion zerbitzua eskaini ahal izateko, baimen bereziren bat edo talde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, betekizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Bi modu daude jarduteko gaitasuna frogatzeko: enpresa ezarrita dagoen estatuko legeriaren arabera bidezkoa den erregistroan inskribatzea edo, bestela, zinpeko adierazpena edo ziurtagiria aurkeztea aplikatu beharreko Batasuneko

ANEXO VI:

DOCUMENTACIÓN EMPRESAS EXTRANJERAS

1.- **En el caso de resultar adjudicataria**, empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo la acreditación de su capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar se podrá realizar mendiante consulta en la correspondiente lista oficial de empresas autorizadas para contratar establecida por un Estado Miembro de la Unión Europea o bien mediante la aportartación de la documentación establecida en los pliegos, con las siguientes particularidades:

1.1. En cuanto a la identificación, deberán presentar documento justificativo de la personalidad en el país en que se encuentren establecidas o pasaporte comunitario.

1.2. Se considera que las empresas tienen capacidad de obrar cuando, con arreglo a la legislación del Estado en que estén establecidas, se encuentren habilitadas para realizar la prestación de que se trate. Cuando dicha legislación exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito.

La capacidad de obrar se acreditará por su inscripción en el Registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde están establecidas, o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, en los términos que se establezcan reglamentariamente, de

xedapenekin bat etorriz (arau bidez finkatuko da nola).

1.3. Kontratutik zuzenean zein zeharka sortzen diren gorabehera orotarako Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien eskumenaren menpe jartzen delako adierazpena, uko eginez, hala badagokio, enpresa esleipendunari legokiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari.

1.4. Sailkapena eskatzen bada, aski izango da kontratazio organoari kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa frogatzea, agiri honetako ezaugarrien taulako F) idatz zatian ezarri den bezala, eta SPKLko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

1.3. Declaración expresa de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles en cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante.

1.4. En el supuesto de exigirse clasificación, será suficiente acreditar ante el órgano de contratación correspondiente su solvencia económica y financiera y su solvencia técnica conforme a lo exigido en el apartado F) del Cuadro de Características de este pliego, y de acuerdo con los artículos correspondientes de la LCSP.

2.- **Europar Batasunaz kanpoko enpresek** baldintza agirietan ezarritako agiriak aurkeztu behar dituzte B gutun azalean, berezitasun hauekin:

2.1. Identifikatzeko, egoitza duten herrian duten izaera ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute.

2.2. Jarduteko gaitasuna; honetarako Espainiak enpresaren egoitza dagoen estatuan daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak emandako txostena aurkeztu behar da.

2.3. Enpresa ezarrita dagoen estatuak administrazioaren eta SPKLko 3. artikuluan azaltzen diren erakundeekin asimilatu eta funtsean antzekoak diren erakundeen kontratuetarako Espainiako enpresak onartzen dituela frogatzen duen txostena. Txosten hori Espainiak dena

